

## Sagarrondoaren Eman

**E**guzkiak eta iturriak bezala,  
sagarrondoak **duen** guztia besterentzat du.

**d**ela loraturik denean,  
begien gozagarri zabaltzen duen edertasuna,  
ahaztu gabe erleentzat eztigaia nahi haina;  
dela sagaturik, eskaintzen duen oparotasuna,  
dela hostoak eranztean lurrari itzultzen dion ongaria,  
dela neguan inausten dutenean  
edo dituenak emanik, azkenik, ihartzen denean,  
ematen duen sutarako egurra.

Sagarrondoak **duen** guztia besterentzat du.

**d**akartzan sagarrak ez ditu beretzat,  
txorientzat, harrentzat, zomorrontzat ditu,  
eta batez ere gizakumearentzat...  
besterentzat denak:  
sagarrondoarentzat izatea ematea da,  
ematean mamitzen du bere izatea.

Sagarrondoa **den** guztia besterentzat da.

**g**izakumea bezalaxe, hau ere gizakume denean  
den eta duen guztia besterentzat du,  
besterentzat da;  
emanez hartzen du,  
emanago eta da aberatsago,  
emateak aberasten du.

**Ez** baita inoiz aberatsa izan asko daukana,  
asko ematen duena baizik,  
eta eman, duenetik bezala denetik.

**b**eretzat bakarrik gordetzen duenean,  
gizakumeak daukana ez baitu berea,  
bera da daukanarena;  
daukan gauzak ez dira bereak,  
bera da gauzena.

Sagarrondoak **duen** eta **den** guztia  
besterentzat da,  
besterentzat du,  
eguzkiak eta iturriak bezala,  
eguzkia eta iturria bezala.

JosAnton Artze